

Noaia!!



Asteburu honetan,
Santuenean jai!



Irailaren 27tik 30era

Garagardo Azoka frontoian

LIZARDI LIBRYDENDA



Liburuak, aldizkariak, musika, opariak,
eskola materiala, testu liburuak,
enkuadernazioak eta fax zerbitzua

Etxebeste kalea, 1
☎ 943 361 115



www.noaua.com



usurbildarren zerbitzura



GU TA GUTÁRAK

bertsu berriak eta lagun zaharrak



www-gutegutarrak-eu kontrabaxak@leku-tx-94-361-115 www-leku-com

Kontzertua
irailak 28 ostirala
22.30h **Sutegin**

Sarrerak. Aldez aurretik erosita 10€ . (Sarrerak Txirristan eta Noaua!ko egoitzan salgai). Egunean bertan: 12€ Noaua!ko bazkideek 8€ tan erosi ahal izango dute Noaua!ko egoitzan aldez aurretik.

Laguntzaileak



Finantzatzen



Albistea iruditan !!

“Parkeipeko plaza”

Duela egun gutxi NOAUA!ko webgunean argitaratu zenez, Usurbilek plaza berri bat du. Oraingoz, behin behineko plaka batekin. Izan zezakeen inaugurazio ekitaldirik politena eta gogoangarriena izan du. Duela urte batzuk auzoko jaiak desagertu bezala, urte askoren buruan, berea den gunean jaiak biziberritzen ikusi baititu.

Eta baita bertan zuen parkea piezaz pieza nola kentzen zuten, zuzenean bizi ere. Hain zuzen, festa horiek igarota, hutsik, “burusoil” geratu da plaza. Horregatik, jarri zioten izenak jolasleku hori aipatzen du. Abuztua amaieran bataiatu zuten, “Parkeipeko plaza”. Atxegaldeko plaza berria.



Noaual

NOAUA! Kultur Elkartea Bordaberri 3 Eguzkitzaldea - 20.170 Usurbil
 943 36 03 21 - elkartea@noaual.com - www.noaual.com

Jendaurreko ordutegia: 10.00-14.00 / 16.00-19.00 astegunetan

Elkarteko lehendakaria: Ana Aizpurua, elkartea@noaual.com

Aldizkariko koordinatzailea: Imanol Ubeda, erredakzioa@noaual.com

Idazkaria: Alaitz Aizpurua, elkartea@noaual.com

Publizitatea: Intza Salsamendi, publizitatea@noaual.com

Kolaboratzaileak: Lontxo Zubiria, Ane Manzisidor, Maria Angeles Arruti, Ainhoa Salsamendi, Maria Jesus Urbiet, Nerea Korta, Aritz Gorriti, Jone Eizmendi, Ainara Arnaiz, Begoña Rekondo, Iñaki Agirresarobe, Ana Urdangarin, Eneko Harreguy, Iñaki Labaka, Koldo Huegun, Aloña Loidi, Imanol Goenaga, Agustin Esnaola, Alex Tello, Pako Agudo, Sara Lazkano, Nerea Aizpurua, Alazne Begiristain, Xabier Arregi, Edorta Agirre, Pello Aranburu, Ainara Uribe, Joseba Pellejero, Maider Makazaga, Aloña Pulido, Ainhoa Azpiroz, Aitor Landaluze, Josu Aranberri, Luis Aranalde, Nerea Zinkunegi, Idoia Torregarai. Denborapasak: LUMA, O.E.

Erredakzio kontseilua: Imanol Ubeda, Aritz Gorriti, Agurtzane Solaberrieta, Joxe Luis Arrastoa, Alaitz Aizpurua.

Informatika: Topaguneko informatika zerbitzua.

Banaketa: Miren Azkonobieta, Txelo Vidal eta Kerman Errekondo.

Elektrikaria: Iñaki Salsamendi.

Tirada: 2.600 ale

Lege-Gordailua: SS-668-96 - ISSN: 1136-6818

Inprimategia: Antza. Zirkuitu Ibilbidea, 2. 20160 Lasarte-Oria.

IKA MIKA ATALEAN PARTE HARTU NAHI BADUZU, GOGOAN IZAN IDATZIAK GEHIENEZ 2.000 KARAKTERE IZANGO DITUELA. ALE BAKOITZEAN EZ DIRA BI IKA-MIKA BAINO GEHIAGO ARGITARATUKO. IKA-MIKA BAT BAINO GEHIAGO IRISTEN BADA, NOAUA!K IDATZI HORIETAKO BAT HURRENGO ALE BATEAN ARGITARATZEKO ESKUBIDEA IZANGO DU. IDATZIA ARGITARATZE-DATA BAINA ASTEBETE LEHENAGO EKARRI BEHAR DA.

NOAUA!k ez du bere gain hartzen IKA MIKA atalean eta, orohar, aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik.

Aurkibidea

FESTAK SANTUENEAN	5. OR.
DATORREN ASTEAN, GARAGARDO AZOKA	6. OR.
DANTZA TALDEA, BERRIZ ERE MARTXAN	8. OR.
ANTENA BERRIA JARRI DUTE ZUBIETAN	9. OR.
UDALA UEMAN SARTU ZELA 10 URTE	10. OR.
AGINAGAKO HERRI ESKOLA	14. OR.
BI ERREBOTE TALDE DITU ZUBIETAK	15. OR.



Euskal presoak



Euskal Herrial



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA
 Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza



NEREA ZINKUNEGI

Bilduma

Sukaldeko argiak piztuta ikusten dira eguna argitu baino lehen, errepidean zarata nagusi goizean goizetik, despertadorei hautsa kendu diegu, oporrak bukatu dira.

Elkorteinglesak eskola umeentzako uniformeak eskaintzen ditu modu onean, telebistako programazioa bere "onera" etorri da, granhermanok edizio berria estreinatu du eta zenbait argitaletzek geroz eta gauza inutilagoak proposatzen dituzte bildumak egiteko.

Urte garai honetan bildumak egiteko eskaintza zabalari ez diot inoiz ez hankarik eta ez bururik bilatu. Zergatik orain?, lanera bueltatzearekin zerikusirik ba ote du? Nolabaiteko diziiplina eskatzen duelako agian?

Neroni ez naiz inoiz bildumazalea izan, beno ez, gezurretan ari naiz; txikitan, Kalexarreko mojetan bazen hermana bat zigiluatarako sekulako pasioa zuena, bere izena ez dut gogoan. Behin, barrioko lagunekin bertara joan nintzen udalekutatik sobratutako joankarlosen kolore ezberdinetako zigiluak hartuta. Bihotz oneko hermanak Peru eta Txileko zigiluak eman zizkidan eta, ez dakit zergatik, joankarlosenak bueltan jaso nituen irribarre batekin. Han bukatu ziren nire bildumak. Denbora batez kartozko kaxa batetan gorde nituen, marrazki exotikoak zituztelako, baina txukunketa goiz batetan zakarretara

bota nituen eta ez ditut inoiz faltan bota.

Zigiluena izango da, agian, bildumarik ezagunena, edo pinturena? Noski, bildumatzeak, ere, norberaren erosalhimenarekin harreman zuzena du. Arabian, rollsroilzak bildumatzen zituen jeke bat zegoela irakurri nuen behin aldizkari batetan.

Urrutira joan gabe ere, burura etorri zaizkit zaletasun xeblebre hau praktikatzen duten zenbait ezagun; itsas maskorak, nondik ekarritakoak diren ahaztutako harriak, xaboia, postalak, sakakortxoak, pospolo kaxak, borragomak, txapak, zerbeza botilak, sagardo eguneko edalontziak eta antzeko objektuak bildumatzen dituzte.

Bildumarena kontua ooooooooooooo zaharra da, hala omen diote behintzat indusketetan egindako ikerketek. Baina kontua da, zein behar asetzen du bilduma egiteak? Jakin minak jota hiztegia hartu eta... bilduma: arrazoiren bategatik biltzen diren kideko gauzen multzoa. Eta zein ote da ba arrazoia?

Uy! Oraintxe konturatu naiz, neronek pixa analisisa egiteko erabiltzen den tapa gorridun potetxo batetan urtetan zehar bota ditudan harriak gordeta dauzkat, edo bildumatuta? Izan ere, botatzeak (harriak) ematen duen lanarekin...

Ainhua Azpiroz - Aitor Landaluze - Luis Aranalde - Aritz Gorriti - Imanol Ubeda - Nerea Zinkunegi - Idoia Torregarai - Joxe Piñas - Unai Agirre

Ika-mika !!

Irailaren 6an berriz ere arratsaldeko 18:00etan hasita gaueko 22:30ak arte Agerre Baserri ondoan, mendebal haize gutxirekin, aitaren baratzean bilduta ginen, izugarrizko kiratsa izan zen. Gaueko 21:30ean gure herriko Udaltzaingoari eta Ertzantzari deitu eta kexua adierazi genuen. Nirekin batera gauza bera salatzen dute beste 6 gizon-emakumek.

Arazo hau orain dela hiru urte sortu zen eta konpondu gabe dago, ez da zuzena aluminiozko perfilak labean sartzea eta kubeta elektrolitikoan sar-

tzen dituzte, batzuk margotuak gainera, hauen keak (plastikoa erreta) tximiniatik isurtzen dira eta izugarrizko kiratsa eta kutsadura eragiten dute. Pentsa bere aurrean eta ondo-ondoan Atxegaldeko herritarrak bizi direla, baratzeak eta sagastiak daudela, piska bat sorterrian Ikastola eta kiroldegia.

Gure herria Lemoiz zentral nuklearraren aurka azaldu da, bai eta errausgailuaren aurka ere eta begibistan beste errausgailua dugu.

Donostian Ingurugiro Fiskalarekin bildu gara eta zera esan digu: "salatu ezazue eta berehala ikerketa egingo

dugu eta arduradunek legearen pisua bere bizkarrean jasoko dute".

Ucin-eko jabeek herriaren bizitza eta osasuna arriskuan jartzea ez da bidezkoa ezta zuzena.

Udalak berehala exijitu beharko luke halako perfil margotuak labean sartzearen debekua, aurreko tratamendua egin gabe eta margoak biltegi berezietara eramanez (Aduna edo baimendutako besteren batera). Begirunez,

Manu Aranburu
Usurbilgo Ekologista Taldea (EKT)

Ucineko kiratsa

Ostiraleko txupinazoarekin hasiko da festa Santuenean

Irailak 21, ostiral arratsaldeko 17:00ak. Une horretan jaurtiko den txupinazioarekin hasiko dira Santueneako jaiak. Asteburua amaitu artean, auzotarrek auzotarrentzat, baina baita bertaratu nahi dutenentzat prestatutakoak.

Aurtengo nobedadeen artean txerri harrapaketa aipatu behar. Santuenean aitzindaria den ohitura berreskuratu baitu Jai Batzordeak. Lehen gauez ospatzen zen, baina oraingoan egunez izango da. Bikoteka eta hankak elkarri soka batekin lotuta txerria harrapatu beharko dute. Lortzen duenak saria

jasoko du; harrapakina bera, txerria.

Beste berrikuntzetako bat, ustekaberi ez izateko kontuan izan beharrekoa; txupinazo osteko globo gerra.

Hortik aurrera, asteburu ederra pasatzeko nahi adina eskaintza. Gaztetxoek adi larunbateko ekitaldiei. Jokoak, piragua saioa edota zezen mekanikoa prestatu baitiete antolatzaileek. Gautxorientzat Larra DJ eta herriko musika taldeen kontzertuak. Gertuko produktuak dastatzeko saio ezberdinak izango dira; hala nola, piperak edota sardinak. Jaiak amaitzeko geroz eta indar handiagoa hartzen ari den trakan aldaketak izango direla ira-



LARUNBAT HONETAN, EGUERDI PARTEAN, JOLASEAN ARITZEKO AUKERA UGARI IZANGO DA.

garri dute antolatzaileek. Kolorea izango baita auzoko jaietako amaiera emango dien su festako protagonista.

Asteburua bete ekitaldi

Irailak 21, ostirala

17:00 Txupinazoa eta txokolatada (Merke tabernaren aurrean). Ondoren, globo-gerra. 18:30 Buruhandiak. 19:00 Sardina jana txarangarekin. 20:30 Auzoko jaietako argazki proiektzioa Santuenea Elkartearen. 00:00 Kontzertuak: Gaueko Itzala, Epok, Odolaren Mintzoa.

Irailak 22, larunbata

10:30 Oria ibaian piraguak. 12:00-

14:00 Haur jokoak eta rokodromoa, tiro-lina, zezen mekanikoa, puzgarriak...

14:00 Haur bazkaria (bakoitzak bere bazkaria ekarri. Edaria eta postrea banatuko dira). 16:00 Mus txapelketa. Izen-ematea: 15:30-16:00. 16:00-19:00 Haur jolasak. 17:30 Txokolatada jubilatutabernaren aurrean. 19:00 Buruhandiak.

20:30 Larra DJ. 21:30 Kantu afaria: Josunerren gitarrekin. 00:00 Berrero Larra DJ.

Irailak 23, igandea

11:30 Herriko dantzariak plazan. Ondoren, hamaiketako jubilatuen tabernaren aurrean. 12:00 Toka. 13:00 Zaldi proba plazan. 14:00 Herri bazkaria, ondoren, txaranga. 17:30 Txerrien harrapaketa Plazan eta ondoren, Mariatxiak. 19:00 Buruhandiak. 19:30 Piper dastatzea. 21:00 Traka.

Antolatzailea: Santueneako Jai Batzordea.

Ilka-mika !

Bejondainela neska, 2002. urteaz geroztik gure artetik derrigorrean urrun eduki haute eta bost urteren buruan berriro hi gure artean izateak poztzen zigun barrena.

Euskal Herri osoan sustraiturik dagoen LAB Sindikatu honek, beti eduki dizkin bere oroitzapenean Euskal Preso Politikoa eta sindikalgintzaren bidez indar gehiagoz euskal errepresaliatu politiko guztiak aske izan arte borrokan jarraituko din.

Bai, orain bost urte "bidai" madarikatu baten hasera izan zenuten hik eta

Ongi etorri Oihana

Jokinek. Lehendik ere etsaiaren errepresio gordinak hire gurasoengan nola jipoitzen zuen aurrez-aurre ezagutu hunan. Orain bost urte lagunartea, lantokia, etxeko bizitza basakeriaz moztua izan zitzaizuen, egun haietan etsaiaren atzaparrak zein krudelak diren berriro ezagutzeko aukera izan ginan usurbildarrok.

Guk baino hobeto dakin bezala, krudelkeri berarekin jokatzeko jarraitzen dinat euskal preso politikoei, horren adibide garbi bat herritar Joxe Domingorekin egin dutena den. Errepresioa eguneroko ogia den euskal

gazterientzat, euskal langilerientzat edo Euskal Herriaren askatasuna aldarrikatzen duen oroientzat.

LABetik eraso guzti horiek salatzen jarraituko dinagu eta euskal langileok zer esana eta egin dugulako, sindikalgintzaren bidez lantegi guztietara salaketa eramaten jarraituko din sindikatuak.

Erakutsi eta eman digun/diguzuen ikasgaiagatik, Usurbilgo LABen izenean bejondainala eta ongi etorriarekin batera beti arte Oihana.

Usurbilgo LAB

Irailaren 27tik 30era, “Usurbilek garagardoa alkate”

Hernanin, Tolosan, Villabonan... Inguruko herrietan ospatzen diren Garagardo Azokak kirol taldeek antolatzen dituzte. Bitxia bezain beharrezkoa. Izan ere, kirol taldeen diru premiak eraginda ugalduta dira garagardo festak. Usurbilen, futbol taldekoak izango dira erruz lan egin beharko dutenak. Datorren astean, estrainekez, “Usurbilek, garagardoa alkate”.

Futbol zelai berriak bultzada berri bat eman die Usurbil Futbol Taldeko kideei. Urtzi Izagirrek aitortu digunez, futbol taldea indartu nahi dute: “orain arte ez genuen instalazio egokirik. Orain futbol zelai berria dugu, erregional mailako bi talde, nesken taldea... Sekula baino gazte gehiago ditugu. Taldea indartu behar dugu”.

Usurbil Futbol Taldeak antolatu du Garagardo Azoka

Usurbil FTko kideek proiektu asko dituzte buruan. Izagirrek dioenez, “klub serio bat egiteko asmoa dugu, ez dut esan nahi lehen serioa ez zenik, baina serioago hartu nahi ditugu gauzak”. Denboraldi berrian, erregional mailako bi talde izango ditu Usurbilek. Eta Urtzik adierazi bezala, “aurrekontua osatzeko ez dugu diru-sarrera nahikoa”. Beraz, diru-sarrera berri bat ziurtatzeko antolatu dute datorren astezko azoka. Baina ez da helburu bakarra. Herriari babesa eskatzeaz aparte,



VILLABONAN ETA DONOSTIAN ANTOLATU ZIREN LEHEN GARAGARDO AZOKAK. ORDUK, HERRI ASKOTAN EGITEN DA. ARGAZKIA: AIURRI.

eskaintza bat ere egin nahi diote. “Futbol talde bezala beste zerbaite eskaini nahi diogu herriari”. Azken asteotan, denbora asko eman dute azoka antola-

tzen. Lehengo astean, Hernanin izan zen Garagardo Azoka. Han izan dira egun horietan, han nola lan egiten duten ikusten eta ikasten.

60 lagun arituko dira lanean

Urtzi Izagirreren ustez, 60 lagun beharko dira lanerako: “Ikusi dugu barran baino sukaldean dagoela lan gehien. Beste azokatan ere, barrako lana baino sukalde lana da zailena bideratzen”. Baina jendea lotuta daukate: “lau ekipo ditugu, bi erregional mailan, neska talde bat eta kadeteena. Nahikoa jendea bagara”. Beraz, klubeko jendearekin osatuko dute azokan arituko den lan-taldea.

Bistan denez, ez da egun batetik bestera datorren egitasmoa. “Hasieratik argi genuen montaje handia izanik, jende asko inplikatu beharko genuela. Hori argi izanda, ez dugu sorpresa handirik hartu”.

Usurbil FTko kide honen esanetan, “azoka handiak eta txikiak daude. Gurea ez da handiena izango”. Baina beste azoken itxura berdina izango du. Ea giroa ere halakoa den.

Kale nagusia, 10
Telf: 943 37 33 48
943 37 09 13

Okindegia - Gozategia

LABE-GOXO

Patri Jatetxea

K/nagusia 14. © 943 362 725

Otar-Goxo
Elikagutia

Zubiaurrenea, nº2
☎ 943 36 55 81
20170 Usurbil

ARRAINDEGIA
PELLO

Puntapax Kalea, 7
Tlf 36 21 64
USURBIL

Urtzi Izagirre, Usurbil Futbol Taldeko kidea

“Ondo ateratzen bada, urtero antolatuko dugu”

Irailaren 27an zabalduko dute azoka arratsaldeko 18:00etan. Igande gaua bitarte, garagardoa izango da nagusi. Lau egunetako festa antolatzeko, ez da nolanahikoa Usurbil FTk egin duen apostua. Eskerrak gure artean festazale eta garagardoazale asko dagoen. Lau egunez, garagardoa izango da nagusi frontoian.

Datorren astean hasiko den azokan, bederatzi garagardo mota ezberdin eskainiko dituzte. Eta jatekorik ere izango da. Beraz, lagunartean afari modukoa egiteko toki aproposa izango da frontoia.

BEDERATZI GARAGARDO MOTA

“Guinness, Heineken, hiru Paulaner klase, Affligem, Murphy’s, Buckler alkoholik gabekoa eta Amstel Oro”

Barra eta sukaldea L moduan ipiniko dute, ezker paretean eta frontisean. Eta kantxan, mahaiak eta aulkiak otrodua egin nahi duenarentzat. Eskenatoki txiki bat ere jarriko dute eta bertan herriko trikitilariak arituko dira.

Jateko, saltxitxak eta ukondoak
Heineken etxea izan da Garagardo Azoka antolatzeko aukera eskaini diena: “barra eta muntaia osoa Heinekenekoe egingo dute, zerbeza ere beraiek ekarriko digute”. Baina sukaldea, aldiz, futbol taldekoek antolatu beharko dute. Ukondoak egiteko labeak alokatuko



USURBIL FT TALDEAK HARTU DU GARAGARDO AZOKA ANTOLATZEKO ARDURA.

dituzte eta saltxitxak egiteko plantxak ekarriko dituzte.

Bederatzi zerbeza klase dastatu ahal izango dira. Hauek: Guinness, Heineken, hiru Paulaner klase, Affligem, Murphy’s, Buckler alkoholik gabekoa eta Amstel Oro.

Jateko, aldiz, saltxitxak eta ukondoak. Patata purea ere eskainiko da. Beraz, atseginak izateko osagai guztiak ditu Garagardo Azokak.

Inguruko herrietan arrakasta handia dute garagardo azokek

Aurtengoa ondo ateratzen bada, jateko zein edateko eskaintza handitu egingo litzateke datorren urtean. Antolatzaileek, lehenengo urte honetan, behintzat, ez dute konplikazio

handirik nahi.

Azoka honek jarraipena izango ote duen ikusteko, jendearen erantzuna zein izango den ikusi beharko da. Urtzik esan digunez, “urtez urte errepikatu nahi dugu. Egon garen toki guztietan jendea ondo ibili da baina ikusteko dago jendeak Usurbilen nola erantzuten duen”.

Usurbilgo Garagardo Azoka

Egunak: irailak 27-irailak 30.

Ordutegia: arratsaldeko 18:00etatik gaueko 00:00ak arte.

Edariak: Guinness, Heineken, hiru Paulaner klase, Affligem, Murphy’s, Buckler (alkoholik gabe) eta Amstel Oro.

Jatekoa: saltxitxak, ukondoak, purea.

Antolatzailea: Usurbil FT.

ANTXETA
taberna-jatetxea

ogitartekoak
eguneroko menua
plater konbinatuak

EGUZKITZA, 4 USURBIL - 943 370 344

txirriStra

KONTSEJUZARRA 13
943 360 466

pintxoak
ogitartekoak
plater konbinatuak

TABERNA

Dantza Taldea, ikasturte berriari ekiteko prest

Dantza Taldeak laster hasiko du ikasturtea. Izena emateko epea irailaren 20an amaituko da. Astebete beranduago, irailaren 28an, bilera batean bilduko dira izena eman duten haurren gurasoekin. Hilaren 28ko bilera arratsaldeko 16:30ean izango da, Agerialdeko frontoian. Dantza Taldeko kideek, bilerara azaltzeko deia egin dute, egun horretan zehaztuko baitira ikasturte berrirako egunak eta orduak. Egun horretan ere, izena emateko aukera izango da.

Laster hasiko du ikasturtea Dantza Taldeak. Hori baino lehen, hala ere, ikasturte amaierako irteera antolatu dute.



IGANDE HONETAN SANTUENENKO
FESTETAN ARITUKO DIRA.

Larunbat honetan izango da, irailak 22. Eta biharamunean Santueneko festetan arituko dira. Santueneko saioa eguerdiko 12:00etan hasiko da.

Gu Ta Gutarrak ikusteko sarrerak Txirristran eta NOAUA!n salgai

Unai Iturriaga eta Igor Elortza bertsolariak, Josu Zabala musikaria (Hertzainak taldeko baxujole izandakoa), Aitor Rubio gitarrajolea, Xanpe baterijolea. Horiek dira Gu Ta Gutarrak ikuskizunaren osagaiak. Datorren ostiralean, irailak 28, Sutegin arituko dira kantari. Sarrerak jada salgai daude Txirristran eta NOAUA!n.

Gu Ta Gutarrak proiektuan bertsoa eta musika dira oinarri. Emanaldia hamar-hamaika bertso sorta musikatu eta bat-bateko bertsoek (a capella zein musikarekin lagunduta) osatzen dute. Beraz, tarteka bat-bateko bertso-saio itxura du ikuskizunak; baina izango da talde lanean egindako kanturik entzuteko tarte ere. Hitzez azaldu baino, Sutegira hurbiltzea onena.

Sarrera, aldeztatik, 10 euro

Saioa irailaren 28an ostirala gaueko 22:30ean hasiko da. Sarrerak, aldeztatik,



UNAI ITURRIAGA ETA IGOR ELORTZA
BERTSOLARIAK, GU TA GUTARRAK
TALDEKO KIDEEKIN BATERA.

aurretik, 10 eurotan eskura daitezke Txirristra tabernan eta gure egoitzan. Egunean bertan soilik takilan izango dira salgai eta 12 eurotan.

Bazkideek sarrera merkeago

NOAUA!ko bazkideek, ordea, sarrera merkeago erosteko aukera izango dute: 8 eurotan, baina irailaren 28a baino lehen eskuratu beharko dute eta NOAUA!ko egoitzan (Txirristran ez dira bazkideentzako sarrerak salduko).

Urrian hasiko da begirale ikastaroa

Buruntzaldeko udalek, tartean Usurbilgoak, aisialdiko begirale izateko ikastaroa antolatu dute. Ikastaroa Hernanin eskainiko den arren, Buruntzaldea eskualdeko edonork har dezake parte. Matrikula 200 eurokoa da (Buruntzaldek kanpoko ikasleek, ordea, 400 euro).

Urrian hasiko da eta ikasturte osoko iraupena izango du. Izena emateko epea irailaren 28an amaituko da. Informazio gehiago: 943 371 999.

KzGunea: irailean arratsaldeztatik, urrian goizeztatik

Irailearen 27an osteguna, ITxartela lortzeko azterketa egingo da. Azterketa arratsaldeko 18:00etan hasiko da. Urrian, ordea, goizeztatik izango da zabalik: 9:00etatik 13:00era, astelehenetik ostiralera.

KzGunea, Kale Nagusia, 37 behe. telefono zenbakia: 943 36 14 12.

Zirriborro pintura eta eskulan tailerrean izena emateko epea, zabalik

Klaseak urrian hasiko dira Zirriborro pintura eta eskulan tailerrean. Aurretik, bilera bat egingo da tailerraren egoitzan bertan: irailaren 21ean ostirala, arratsaldeko 19:00etan. Helduentzat nahiz haurrentzat den tailer honen inguruko informazio gehiago jaso nahi baduzu, eskura duzu honako telefono zenbakia: 609 41 38 83.



Eñaut Zuriarrain, Zubietako alkatea

“Antena berriak telekomunikazioetarako erabilera izango duela uste dugu”

Dagoeneko toki askotatik ikus daiteke antena berria, Zubietako mendialdean ipini berri dutena. Bizkarretik, esate baterako, oso nabarmen. Antena horren kontua, ordea, aspalditik dator. Donostiako udalak duela 10 urte agindu zehatz bat eman zion Radio Nacional de Españari (RNE): Uliako guardetxean den antena kentzea. Gorabehera asko eta gero, Zubietako Biribilondon jarri duten antenak ordezkatu du Ulian dagoen antena.

Aurreko astean herritar batek deitu zuen, Zubietan antena altxatzen hasi zirela esanez. Berehala Eñaut Zuriarrain Zubietako alkate berriarekin jarri ginen harremanetan: “antena jartzeko lanak aspalditik datoz. Trasteak eta egiturak duela egun dezente igo zituzten”, adierazi zigun Eñautek.

EÑAUT ZURIARRAIN

“Telefono konpainien antenak ere jarriko ote dituzten, hori da gure beldurra”

Antenarako bidea zabaltzeko lanak, ordea, duela bi urte hasi ziren. Zubietatik Biribilondo izena duen mendixkara pista bat zabaltzen hasi zirenean, gorabehera ugari izan ziren.

Zubietako alkateak esan digunez, mendian bidea zabaltzea “tentagarria zen hainbat lur-jabeentzat. Antenarainoko bidea aprobeztatuz, euren lurretara bidea zabaltzeko aukera ikusi zuten. Bide batez, zenbaitzuk argi-indarra eta ur-hartuneak egiteko ere aprobeztatu dute”.

Hasiera batean, Donostiako Uliako antena zurigorria ordezkatu behar zuen orain Zubietan ipini duten antenak. Baina Zubietako Herri Batzarreko kideek ez dakite antena horrek zein erabile-



IRAILAREN 12AN HASI ZIREN ANTENA JARTZEN. ARGAZKIA EGUN HORRETAkoa DA.

ra izango duen. “Lurrak Eusko Jaurlaritzarenak dira eta antena horrek telekomunikazioetarako erabilera izango duela pentsatzen dugu. Dena den, lur zati handi bat garbitu dute eta antena bat baino gehiago jartzeko tokia dago. Telefono konpainien antenak ere jarriko ote dituzten, hori da gure beldurra”.

Eñaut Zuriarrainek, azkenik, Donostiako udalaren jarrera salatu nahi du: “Traba egiten duen guztia Zubietara ekartzeko asmoa azaldu du berriz ere Donostiako udalak. Martuteneko kartzela, errauste-planta, milaka etxebizitza... eta orain antena”.

IMANOL UBEDA _____

Duela bi urte hasi ziren pista zabaltzen

Uliako guardetxearen ondoko antena zurigorria Zubietara eramán. Hori omen zen lehen egitasmoa. Radio Nacional de Españaren (RNE) antena da hori eta Zubietara eramateko lanak duela bi urte hasi zituzten. Orain begibistan da, Biribilondo izena duen mendian, 400 metroko tontorrean.

Gipuzkoako Foru Aldundiak 2003ko udan onartu zuen antena lekuz aldatzea eta RNEri baimena eman zion Zubietako Biribilondo mendian jartzeko. Ondoren, obra egin aurretik, udal baimena lortu behar izan zuten. Horrez gain,

Eusko Jaurlaritzak monumentu izendatu zuen Andatza ingurua 2003an, hainbat monumentu megalitiko daudelako bertan, trikuharriak gehienak (Donostiako lurretan, esate baterako, hiru). Hori dela eta, prozedura berezia jarraitu behar izan dute obrak hasi aurretik. Aranzadi elkar-teak ingurua aztertu zuen beste arkeologia aztarnategirik ote zegoen bilatzeko. Ikerketan ez zuten obrak gelditzeko adina elementurik topatu.

Biribilondo tontorrerako zabaldutuen pistak lau metro eta erdiko zabalerara eta hiru kilometro luzera du.

Usurbil UEMAn sartu zeneko hamargarren urteurrena gogora ekarriko da datorren astean

Gai gisa euskara aukeratu dute Aitzaga Kultur Elkarteko kideek iraileko azken astera-ko antolatu dituzten ekitaldietarako. Usurbil Udalerrri Euskaldunen Mankomunitatean (UEMA) sartu zeneko hamargarren urtemuga betetzen dela eta, irailaren 24tik 29ra Euskal Herrian Euskaraz-ek prestatutako erakusketa bisitatu eta UEMAr buruzko hitzaldia entzun ahal izango da Sutegin.

Usurbil herri euskalduna dela dioen kartela ikus daiteke errepidez herriko muga igarotzean. Udalerrri Euskaldunen Mankomunitateari (UEMA) erreferentzia egiten dio kartelak. Erakundearen helburu nagusiak herritarren bizitza soziala euskalduntzea, udalerrri euskaldunen sarea osatzea eta udalerrri euskaldunen garapen sozio-ekonomikoa eta soziokulturala bultzatzea dira.

Usurbil UEMAn 1997an sartu zen. Orditik, hamar urte igaro dira eta efemeride hori baliatuta, Aitzaga Kultur Elkartek euskararen inguruko aste bat prestatu du, iraila amaierarako. “Askotan pentsatzen dugu Usurbil oso herri euskalduna dela, eta euskalduna da, baina oraindik euskararen egoera ez dago normaldua”, gogorarazi dute antolatzaileek. Alde horretatik, normaltze bide horretan urteurrena bete duen erakundeak egindako lana azpimarratzen dute. “Urte haietan lan asko egin zen, elkarte mordo bat inplikatu ziren ahalegin horretan”, gaineratu dute.

Euskararen iragana, oraina eta geroa

Euskararen egoera eta UEMaren urteurrena lotuta datoz datorren astera-ko prestatu dituzten ekitaldietan. Hain zuzen, Euskal Herrian Euskarazek (EHE) prestatutako erakusketak eta UEMAr buruzko hitzaldiak osatzen du kultur elkarteak antolatutako eskaintza.

Denboran zehar euskarak izan duen bilakaera jasotzen du erakusketak.



DUELA 10 URTE, USURBIL UEMAKO KIDE EGIN ZENEAN, HAINBAT EKITALDI EGIN ZIREN HERRIAN. IRUDIAN, 1997KO EKAINEKO JAIALDIA.

AITZAGA KULTUR ELKARTEA

“Denboran zehar, euskarak izan duen bilakaera jasotzen du Sutegiko erakusketak”

“Euskal Herri osoko ikuspegia hartzen du. Egokia iruditzen zitzaigun ikuspegia ikusteko. Euskarak ere oraindik bultzada behar duelako, gure herrian eta oro har”, adierazi dute Aitzaga Kultur Elkarteko kideek. Hizkuntzari lotutako gorabeheren artean, euskararen iragana orainaldiarekin lotzen duen panel bat dago; atzerapenaren mapa. Bertan argi ikus daiteke euskarak mendeetan zehar, zer nolako atzerakada jasan duen eta halakorik zergatik gertatu den. Egungo egoera aztertzen du; hala nola, elebitasuna edota arloz arloko hausnarketa.

Hemendik aurrerakoei ere begira jaritzen da EHEk prestatutako erakustaldia. Euskararen normaltze bidean, oraindik egiteke egon daitekeena azpimarratzen du arloz arlo; hala nola, justizian zein osasun administrazioetan, hedabideetan...

Kale neurketako datuak ikusgai

Euskal Herrian Euskarazek hainbat herrietan zabaldu eta oraingoan, Sutegin ezagutzeko aukera izango den erakusketari, beste panel bat erantsi diote Aitzaga Kultur Elkartekoek. Duela urtebete herriko hainbat txokotan egindako euskarari buruzko kale neurketen emaitzak gehitu dizkiote.

Euskararen erabilera, gorantz

Otsailean aurkeztu ziren pasa den udazkenean egindako saioen ondorioak. Adina, sexua, neurketa egiteko lekua eta unea, haurrek elkarrizketatan zuten parte hartzea, elkarrizketak edo bakarrikizketak izan...

Azterketak faktore bat baino gehiago kontuan hartzen zituen. Euskararen erabilerak gorantz egiten zuela ziorten bildutako datuek, baina joera hori ez zen aurreko azteraldietan bezainbeste-koa izan. Datu guztiak, eta 2015erako espero daitekeen egoera biltzen dira azterketa horretan.

Jabier Pikabea, 1997an euskara batzordeko kidea

“Usurbil UEMAren motore bihurtu zen”

Euskarari lotutako astea antolatutako izanaren arrazoi nagusia, UEMAren hamargarren urtemuga gogora ekartzea izan da. 1997an eman zuen Usurbilek aipatutako erakundean sartzeko pausoa. Prozesu guztia eta horrek herriari ekarri zizkion aldaketak oso gertutik bizi izan zituen Jabier Pikabea usurbildarrak. Legegintzaldi hartan, udalean euskara batzordean lanean baitzebilan. “Herriko elkarte eta alor ezberdinetako erakundeekin elkarlanean”, adierazi du Pikabeak. Sinadurak bildu omen ziren herrian. Pausoa eman zen eguna, udaletik kanpo eta pleno berezi batekin ospatu zen.

UEMAren sartzek eragin nabarmena izan zuen herrian eta erakundean ber-

tan. Udalean, langile euskaldunen kontratazioan eta idatzi ofizialetan. “Udala goitik behera zeharo euskalduntzea lortu genuen”, gogoratzen da. Baina ez hori bakarrik. UEMAren justizia zein osasun arloetan egindako interbentzioak ere gogoan baititu. Bere esanetan, “Gipuzkoan zeharo euskaldundu zen lehen anbulatorioa Usurbilgoa izan zen”. Hala, mediku erdalduna egokitzen zenean, beste mediku euskaldun batekin trukatzeko lortu zuten. UEMAk abiarazitako prozesua garrantzitsutzat jotzen du Pikabeak, baina baita Usurbilek bertan izan zuen papera ere. Bere esanetan, “izugarritzko bizitasuna eman zion UEMARI. Usurbil erakunde horren motore bihurtu zen”.



EZKERREAN JABIER PIKABEA, 1997AN EGIN ZEN EKITALDIAN.

“Aurrera ez egitea atzera egitea bezala da”

Herri mailako jarduerari dagozkionez, Aitzaga Kultur Elkarteko kideen esanetan, “Ezker Abertzaleak lan egiten jarraituko du eta lau urte hauetan eman den hutsunearen ostean, UEMA berrindartzea espero dugu”.

Atzerapentzat jotzen dute azken legiegintzaldian Usurbilen eta oro har, elkartutako udalerriek osatzen duten sareak bizi izan duen egoera. “UEMA

orain paralizatua egotea atzera pausoa da. Aurrera ez egitea, atzera egitea bezala da”, adierazi dute.

UEMAri buruz EHEko kide Unai Larreategik eskainiko duen hitzaldian, UEMAren zeregina zein den azalduko da. Ekitaldi berean izango da udaleko euskara zinegotzi Nerea Erauntzetamurgil ere. Egungo egoerari buruz hitz egiteaz gain, hemendik aurrera alorreko lan ildoak aurkeztuko ditu irailaren 26an Sutegein izango den ekitaldian.

Urteurrena gogora ekartzeko ekitaldiak

Erakusketa

Irailak 24/ irailak 29: “Euskararen egoera Euskal Herrian” erakusketa Sutegein. Ordutegia: Astegunetan, 18:30-20:30. Larunbatean, 11:00-13:00.

Hitzaldia

Irailak 26, osteguna: 19:30ean, Euskal Herrian Euskarazeko (EHE) kide Unai Larreategik UEMARI buruz eskainitako hitzaldia Sutegein.

Aitzaga itxi arren, lanean jarraitzen dute

Auzitegien aginduz, 2006ko Aotsailean itxi zuten Aitzaga bi urtetarako. Ordutik Elkartetik egindako hainbat eskaeren erantzuna uda honetan jaso dute. “Erantzun ziguten itxia mantenduko zutela. Bi urteak beteko dira eta orduan ikusiko dugu zer gertatzen den”, argitu dute Aitzaga Kultur Elkarteko kideek.

Edozein kasutan, itxierak gunerik gabe geratzeko ekarri bazuen ere, hutsune horrek ez du bertako kideen lana eten. “Aitzaga urte eta erdiz itxita egon arren, elkarte bezala ekitaldiak antolatzen jarraitzea erabaki genuen. Ez maila berean noski, gune bat ez izateak dinamika asko oztopatzen baitu”, adierazi dute.

Oztopatu bai baina eragotzi ez. Eta horren adibide dira datorren asterako prestatu dituzten ekitaldiak. Ez dira, ordea, urteko azken ekitaldiak izango. Dagoeneko aurrera begira jarrita, hor baitago azaroaren leko azoka edota hilabete berean programatzeko asmoa duten transgenikoei buruzko hitzaldia.



BORDATXO
edaritegia

PINTXO BEREZIAK

Zubiaurrenea, 5
Telf: 943 37 10 42

Haginak ondo dabilzanean, sabela poz!

USURBILGO HORTZ KLINIKA

FERNANDO PEREZ-MOSSO NENNINGER
ANTONIO BERNAL RUIZ DE OÑA

Kale Nagusia, 2 1.C4
Tlf 943 37 08 78

20170
USURBIL

Ikastaro ugari antolatu ditu Guraso Eskolak

Izena emateko egun bakarra izango da, irailaren 26a asteazkena

Sabel eta saloi dantzak, pintura eta eskulanak, laboreak, masajea, yoga, memoria lanketa, sukaldaritza eta bitxigintza. Berrikuntzekin eta eskaintza indartuta datoz Guraso Eskolakoak. Ikasturteari urrian ekingo diote, baina proposatzen diguten ikastaroetan izena emateko egun nagusia datorren irailaren 26a, asteazkena izango da.

Aurreko ikasturtean baino gehiago, bederatzi dira Guraso Eskolak 2007-2008 ikasturte berrian abian jarriko dituen ikastaroak. Sukaldean trebatu, dantza egiteko modua findu, memoria landu edota yogarekin lasaitzea proposatzen digute aurtengoan. Urrian hasiko dira nobedadeekin datozen saioak. Hain zuzen, prestatu duten eskaintza, matrikulatzen diren herritarrei egokitu nahi izan diete. "Jendeak eskatutakoa kon-tuan hartzen dugu", adierazi dute Guraso Eskolatik.

"Etxean ez geratu, eta eman izena"

Iazko ikasturteari begira, baikorrak dira Guraso Eskolakoak. Hala ere, haien esanetan, harrera ona dute abian jartzen diren ikastaroek. "Jendea gauza berriak egiteko gogoz egoten da", baieztatzen

dute. Hilabeteek aurrera egin ahala, ordea, gorabeherak izaten dira saioen parte hartzeari dagokionean; hilabete batzuetan jaitsi egiten da saioetara hurbiltzen den herritar kopurua. Antolatzaileak eguneroko bizitzan askotan izaten den denbora faltaz jabetzen dira. Presaka, norberak dituen zereginetara iritsi ezinik izaten dela jendea. Baina hala ere, gure eguneroko agendan tarte bat aurkitzera animatzen dute. "Etxean ez geratu, eta eman izena", deitzen dute.

Irailaren 26an izango da matrikulazio eguna. Baina egun horretan, edozein arrazoi tarteke izena emateko aukerarik ez duenak, 615 006 535 telefono zenbakira hots egin dezake hurrengo egune-tan. Bide bera aukeratu behar du, edozein zalantza, galdera edo proposamen bat egin nahi duenak.

Antolakuntza lanean dabiltzan gehientsuenak urte dezente daramatzate Guraso Eskolan. Aurtengoan, ordea, aurpegi berriak batu zaizkie haien jardunean; bost kide berri. Baliabideak, hala ere, ez dituzte soberan; ez giza baliabideak, ezta materialak ere. Prestatuta duten ikastaro sortarentzat txiki samarra gertatzen zaie lokala. "Ekimenak lokal majo bat eskatzen du", gogorarazi dute. Hala ere, oraingoz dutenari eutsi nahi diete;



BESTEAK BESTE, BOLILLO ETA GANTXILO IKASTAROA ANTOLATU DUTE.

egun duten guneari eta ikastaroek herrian duten harrerari.

Matrikula nola osatu

Ordutegia: 11:00-12:00 / 17:30-19:30.

Lekua: Txaramunto 1, Zumarte Musika Eskolaren ondoan.

Telefonoz: 615 006 535 (12:00-13:00 / 17:00-19:00).

ARITZ GORRITI

Bederatzi ikastaro aukeran

LABOREAK

Edukia: boliloak, punto-cruz, gantxiloa...
Epea: urritik ekainera.
Maiztasuna: astean behin, bi ordu.

SUKALDARITZA

Epea: azaroan hasita.
Maiztasuna: sei astez, saioko ordu eta erdi.

PINTURA ETA ESKULANAK

Epea: urritik ekainera.
Maiztasuna: astean behin, bi ordu.

SALOI DANTZAK

Edukia: salsa, merengea, tangoa, rocka...
Epea: urritik ekainera.
Maiztasuna: astean behin, bi ordu.

SABEL DANTZA

Epea: urritik ekainera.
Maiztasuna: astean behin, bi ordu.

MEMORIA LANTZEN

Epea: urritik aurrera.
Maiztasuna: hamabi astez, asteko ordubete.

YOGA

Edukia: luzaketak, arnasketak, lasaitzeak...
Epea: urritik ekainera.
Maiztasuna: astean behin, ordu eta erdi.

BITXIGINTZA

Epea: urritik ekainera.
Maiztasuna: astean behin, bi ordu.

MASAJEA

Epea: lau hilabete.
Maiztasuna: astean behin, bi ordu.

Helduen Hezkuntza Eskolan matrikula egiteko epea zabalik

Ikasteak ez du adinik. 25 urtetik gorakoek ere ikasketei ekin edota horietara itzultzeko aukera dute Helduen Hezkuntzan. Hilabete hasieratik izena ematea zabalik dago Agerialden. Ikasturtea ere bertan burutzeko aukera dago.

Garai bateko ikasketak amaitu gabe utzi edota zerbait ikastea gustuko izan eta berandu dabilela uste izatea. 25 urtetik gora izanez gero, egoera horiek badute konponbidea; Helduen Hezkuntzan matrikulatu besterik ez dago. Doakoa eta ofiziala da. Iraila hasieratik Agerialden zabalik da izena ematea; arratsalde, 16:00-18:00 artean edota honako telefono zenbakietan: 943 361 273 eta 943 366 608.

Eskaintza zabala

Alor askotako ikasketak burutu daitezke bertan; hobeto irakurri eta idatzi, kultura orokorra garatu, ordenagailua erabiltzen jakin... Titulazioa lortzeko bidea ere bada Helduen Hezkuntza. Alde horretatik, DBHko titulua eskuratu



25 URTETIK GORAKOEK IKASKETEI
HELTZEKO AUKERA DUTE AGERIALDEN.

edota 25 urtetik gorakoentzat Unibertsitateko sarrera froga presta daiteke. Atzerritarrentzat, gaztelera klaseak ere ematen dira. Ikasturtean zehar antolatzen diren literatura tailerretan edota irtenaldien bidez, jende berria ezagutzeko gunea da.

Agerialden bertan

Unibertsitaterako sarrera froga Lasarte-Oriako hezkuntza zentroan prestatu behar da. Gainerako eskaintzan interesatua dagoenak Agerialdeko eraikina izango du bere ikasketa zentro berria.

1956ko kintoen afaria

Afaria Patri jatetxean egingo da Airilak 29an, gaueko 21:00tan. Aurrez izena eman behar da, azken eguna irailak 25a izango da eta ondorengo telefonoetara deituta egin deza-kezue: 695780696 (Blanka) 943363195 eta 687706363 (Mertxe).

1955ean jaiotakoek ospakizuna, urriaren 20an

Urriaren 20an bilduko dira. Hala dio NOAUA!ra igorri duten oharrak: "Oraintxe ia urtea igaro da azkenekoz elkartu ginenetik, eta badator berriro gure eguna. Antolatzen ari gara aurtengo bilera, eta zuek deika hasteko irrikitan gaude. Ohiturari jarraituz, urriko hirugarren larunbatean elkartuko gara, aurtun, urriaren 20an. Azken egunera arte zain egon gabe, hasi deika aipatzen diren telefono zenbaki hauetara. Aurrerago zehaztuko dugu non bilduko garen. Telefonoak hauek dira: Karmele, 943 364631 Rosario, 666 916000".

Larunbat honetan, Oztibarreko ikastolaren aldeko festa Lasarte-Orian

Nafarroa Beheran berriki eraiki dituzten Oztibarreko ikastola eta kolegioari elkartasuna adierazteko egingo da larunbateko ekitaldia. Landaberri Ikastolako Guraso Elkartek antolatu du, Lasarte-Oriako udalaren eta Usurbilgo Nafartarrak taldearen laguntzarekin.

Usurbilgo txalapartariak

Lasarte-Oriako Kultur Etxean egingo den jaialdian hauek hartuko dute parte: Joseba Tapia, Mixel Ducau eta Caroline Philips, Amalur trikitixapanderojole taldea eta Usurbilgo txalapartariak. Saioa gaueko 22:30ean hasiko da.

Datorren astean hasiko da hirugarren adinekoak zaintzeko ikastaroa

Mendikoik eta Usurbilgo udalak hirugarren adineko pertsonak zaintzeko ikastaroa antolatu dute. Ikastaroa irailaren 25ean hasiko da eta Guraso Eskolako egoitzan emango dira ikastaroko klaseak.

Irailaren 25ean hasiko da ikastaroa eta azaroaren 8an amaituko da. Astean bitan elkartuko dira, astearte eta ostegunetan, 15:30etik 19:30era.

Ikastaroa Guraso Eskolako gelan izango da (Zumarte Musika

Eskolaren ondoko eraikinean dago Guraso Eskola eta AEK euskaltegia).

Izena emateko azken eguna, irailaren 20a

Ikastaroa egiteko 25 euroko kuota ordaindu beharko da. Ikastaroa bukatzean, ordea, dirua itzuliko zaie ikastaroa osatu duten guztiei.

Izen emateko azken eguna irailaren 20a izango da. Telefono zenbaki honetara deitu behar da:

687 865 658 (Saioa).

Itxura berria du Aginagako Eskola Txikiak

Egoera larrian da Aginagako Eskola Txikia. Hori zioen ekainaren 22ko NOAUA!n bildu genuen titularretako batek. Hezetasun handia zuela, erabat utzita zegoela eta berritze premia handia zuela adierazi ziguten gurasoek. Gaur egun, egoera bestelakoa da. Uda partean erlojuaren kontra aritu dira lanean eta orain itxura berritua du eskolak.

Pasa den udaberrian, Aginagako Eskola Txikiko gurasoak NOAUA!ra jo zuten. Eskola egoera larrian zegoela eta ez bazen berritzen, itxi egin beharko litzatekeela. Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Saileko delegaritzakoak ere harrituta zeudela Aginagako eskolak zuen itxurarekin. Hitz gutxitan, premiazkoa zela eskola berritzea. SOS deialdi moduko bat egiten ari ziren gurasoak.

Baina eskolak zuen itxura bezain etsigarria egin zitzaaien Usurbilgo udalaren jarrera. Izan ere, aurreko udal gobernu taldeak eskola berritua izango zela zin egin zien. 160.000 euroko proiektua agindu zitzaaien. Eskola berri bat, alegia. Baina aurreko legealdia amaitu zen, eta hitzez agindutakoa ez zegoen udal aurrekontuan jasoa. “Espedienterik ere ez zen”, adierazi digu Xabier Mikel Errekondo alkateak.

Uda hasieran, Eskola Txikikoak udal gobernu berriarekin jarri ziren harremanetan. Arazoa hasi berri dugun ikasturtea baino lehen konpondu behar zen. Juanjo Olaizola (EAE-ANV) alkateordearen esanetan, “Usurbilgo udalak bakarrik ezin du ikastetxe berri bat bideratu. Beste ins-



TXIKIEN GELAK ITXURA HAU HARTU DU BERRITZE-LANEN ONDOREN.

tituzio batzuk ere inplikatu beharko lirateke”. 160.000 euroko aurrekontuari aurre egin ezinik, Usurbilgo udalak 19.000 euroko inbertsioa egin ahal izan du. Diru partida horrekin, Aginagako Eskola Txikia berritu ahal izan dute. Horretarako kreditu aldaketa bat egin dute udal aurrekontuetan.

Elkarlanean bideratu da arazoa

Berritze lan horiek, elkarlanean bideratu dituzte Usurbilgo udal ordezkariak eta Eskola Txikiko kideak. Hasiera batean, Eskola Txikien koordinatzailearekin eta ondoren Aginagako Eskola Txikiko zuzendari berriarekin.

Denbora batean, behintzat, toki egoki batean izango dira Aginagako haurrak eta irakasleak. Aurrera begira, ez da ikastetxe berri bat egitea baztertzen. Baina Aginagako Eskola Txikiaren egoitza Elizbarrutiarena da. Eskolaren erabilpenarengatik, Usurbilgo udalak alokairu

bat ordaintzen du. Beraz, bertan eskola berri bat egiteko akordio batera iritsi beharko lukete bi aldeek. Gainera, finantziazioan beste erakunde batzuk ere inplikatu beharko lukete. Parke berri bat egitea ere aurreikusi da. Baina hori ere, epe luzera aztertu beharreko gaia izango da. Bien bitartean, helburua bete dute: Aginagako ikasleek ere, toki txukun batean ekingo diote ikasturteari.

19.000 euroko inbertsioa

Bi gela egokitu dituzte. Komonak, eskola batek dituen premietara egokitu dituzte. Bulegoa ere berritua izan da eta biltegi bat ere egin da. Eskola Txikian garrantzia handia ematen zitzaion sarbideari eta hori ere berritua izan da. Azken hau da jartzeko falta dena, baina zurginak ate nagusia bukatzen duenean amaituko da sarbidea egokitzeko lana.

IMANOL UBEDA

Marian Viadero, eskolako zuzendaria: “Obrak guztiz beharrezkoak ziren”

Ikasturte berria, zuzendari berria. Udan hasi zen lanean Marian Viadero irakaslea. Eskolan egin diren lanen jarraipena egiteko aukera izan du. Gustura dago egin diren gauzeekin, baina hobekuntza batzuk falta direla adierazi digu. Gai honi jarraipena eman behar zaiola uste du eta udaletxean ere hori agindu diotela azaldu digu.

“Obrak guztiz beharrezkoak ziren. Uztailean hona iritsi nintzenean, atzeraka ematen zuen eskolak”, Marian Viadero zuzendari berriaren hitzak dira.

Txukunketa ikaragarri bat behar zuen, hori zen premiazkoena. Haur Hezkuntzako gelan, txikientzako komon egokiak antolatu dira eta fatxadan drenaje moduko bat egin da, hezetasunaren arazoa konpondu ahal izateko. “Udaletxeak adierazi digunez, hau hasiera izan da”. Izan ere, badira bideratu behar diren beste kontu batzuk: parkea, jangela... “Patio orduan, haurrak karretera ondoan daude”, adierazi digu gurasoetako batek.

Jangela zerbitzua eskaini zen matrikulazio kanpainan. Oraingoan, tabernan eskainiko da zerbitzu hori, beste lokal bat bila-

tzen den bitartean. Beraz, hori da Aginagako Eskola Txikiak duen beste erronka. “Udaletxearekin lanean jarraituko dugu, ea jangelarako beste lokal bat aurkitzen dugun”, dio Marian Viaderok.

Obra hauekin, psikomotrizitate-gela galdu du eskolak baina ludotekaren egoitza erabiltzeko aukera izango dute. Biltegi handiago baten beharra ere badute.

Orokorrean, gustura daude gurasoak eta irakasleak. Baina berrikuntza hauei jarraipena eman behar zaiela uste dute. Ingurua ere berritzea (eskola ondokoa, parkea) premiazkoa dela adierazi digute.

Zubietak bi talde izango ditu errebote txapelketan

Zubietako Pilota Elkartek eta Villabonako Behar Zana Elkartek antolatzen duten Endika Abril errebote txapelketaren 44. edizioako lehenengo hiru partidak jokatu ziren pasa den igandean. Urtero bezala, iraila iritsi orduko jokoan izaten da Euskal Herriko hegoaldean errebotea bizirik mantentzen duen lehiaketa eta aurten sei dira bertan parte hartzen duten taldeak. Horietatik bi, gainera, zubietarrek osatutakoak dira eta bi hauek izan ziren aurrez aurre Zubietako errebote plazan lehenengo jardunaldian.

Aurtengo txapelketan parte hartzaile kopurua txikiagoa bada ere, Zubietako Pilota Elkartek bi talde osatu ditu.

Bertako bi taldeen arteko norgehiagoka izan zen Zubietan joan den igandean jokatu zena. Joseba, Imanol eta Josu Aizpurua, Kerman Errekondo eta Anartz Goya ziren alde batetik Zubietan I izenarekin eta Ugaitz Rezola, Josu Alkorta, Gorka Sanchez, Mikel Aizpurua eta Ander Iraola beste aldetik Zubietan II izenarekin. Hala ere, neurketak ez zuen kolorerik izan. Lehenengo taldea erraz gailendu zen Zubietako errebote plazan. 13-2 irabazi zuten eta txapelketako lehen bi puntuak eskuratu zituzten.

Neurketa hasieratik nagusi izan ziren irabazleak. Zazpi joko egin zituzten erreskan. Zubietan II taldeak, ordea, bi joko egin zituen partida erdi horretan,



IGANDE HONETAN BIGARREN JARDUNALDIA JOKATUKO DA.

baina hortik aurrera irabazleek ez zuten garaipena lortzeko arazorik izan. Bertako pilotariak aurrez aurre izan baziren ere, norgehiagoka honek ez zuen ikusmin handiegirik sortu.

Igande honetan bigarren jardunaldia jokatu da. Zubietan I taldeak Uztaritzen aurka jokatu du Zubietan eta Zubietan II taldeak, berriz, bertako Oiarpe taldea izango du aurrez aurre Oiartzunen. Lehenengoek irabazi egin beharko dute finalera iristeko aukerak izate aldera. Bigarrenek, aldiz, beren lehenengo garaipena lortu nahiko dute.

Guztira sei talde dira lehiari aurtengo honetan. Zubietako biak, Oiartzungo Oiarpe, Villabonako Behar Zana, Kapito Harri eta Luzeaz Gain. Itzuli bakarrera guztiek guztien aurka jokatu dute eta lehen postua eskuratzen due-

nak Villabonako errebote plazan izango den azken partida jokatzeko txartela ziurtatua izango du. Bigarren eta hirugarren postuak eskuratzen dituztenek finalerdia jokatu beharko dute Oiartzunen.

JOSU ARANBERRI

Soinketa erritmikoan izena emateko garaia

Soinketa erritmiko taldeak jada sekun dio ikasturte berriari.

Astean bitan izaten dira entrenamenduak: asteartetan eta ostegunetan. LH3 arteko ikasleak ordutegi honekin: 16:45-17:45. LH3tik aurrerako ikasleak ordubete beranduago: 17:45-18:45.

Futbol taldeak ez dira fin hasi

Lehenengo jardunaldia ez zen onegia izan Usurbil Futbol Taldearentzat. Azken urteetan lehiari izan ez den kadete mailako taldea izan zen garaipena lortu zuen bakarra. Agustín Dominguezaren aginduetara partida bikaina jokatu zuten herriko gazte-txoelek Harane futbol zelaian eta 6-0 irabazi zuten Donostiako San Patricio taldearen aurka. Aipatzekoa da Iñaki Argote jokalaririk sartutako 5 golak.

Errejonial mailako taldeek, berriz, ezin izan zuten garaipenik lortu denbo-

raldi hasierako lehenengo jardunaldian. Iker Dorronsorok zuzentzen duen 1. Errejonial mailako taldeak 2-2 berdindu zuen pasa den larunbatean Lezoko Allerruren aurka Haranen. Markagailuan atzetik joan ziren partida osoan zehar, baina azkenean puntu bat lortu zuten. Jon Usandizaga eta Eneko Harreguy izan ziren golegileak. Aurten sortu den 2. Errejonial mailako taldeak, berriz, 2-1 galdu zuen Tolosan Amarozen taldearen aurka. Herriko jokalaririk gazteek nahikoa partida ona jokatu zuten,

baina bigarren zatia erdi aldera 2-0 atzetik jarri ziren eta neurketa amaitzean zela Xabier Izetak egindako golaren ondoren berdinketa lortzen saiatu arren azkenean esku hutsik itzuli ziren etxera.

Nesken partidari, 5 penalti aurka

Azkenik, Emakumezkoen ligako taldeak 10-0 galdu zuen Zestoan bertako taldearen aurka. Epaile federatuaren faltan, zestoar batek egin zituen epaile lanak eta usurbildarren aurka bost penalti adierazi zituen.

Eguneko goardiako farmaziak

Irailak 20, osteguna
Rodríguez, Nagusia 42 atz Lasarte

Irailak 21, ostirala
Gil, Nagusia 24 Lasarte

Irailak 22, larunbata
Urbistondo, San frantzisko 1, Lasarte
Iturralde, Bordaberri 1 Usurbil

Irailak 23, igandea
Urbistondo, San frantzisko 1, Lasarte

Irailak 24, astelehena
Acha-Orbea, Hipodromo etor. 6 Lasarte

Irailak 25, asteartea
Urbistondo, San frantzisko 1, Lasarte

Irailak 26, asteazkena
Orue, Jaizkibel 2 Lasarte

Irailak 27, osteguna
De Miguel, Nagusia32 Lasarte

Irailak 28, ostirala
Rodríguez, Nagusia 42 atz Lasarte

Irailak 29, larunbata
Gil, Nagusia 24 Lasarte

Irailak 30, igandea
Gil, Nagusia 24 Lasarte
Oa Kontzeju Zaharra 11 Usurbil

GOARDIAKO FARMAZIA, GAUEZ
J. Etxebeite Farmazia
Elkano 2 kalea, Hernani 943 55 20 87 (gaueko guardia 22:00etatik 09:00ak arte)

2007ko egutegia noaua.com webgunean

NOAUA!ren tren eta autobus ordutegia, patrikan eramateko egokiena

Norabaitera joan edota herrira itzuli nahi eta autobusa edo tren auzoan dugun askotan ez dugu jakiten. Horretarako dago NOAUA!k argitaratu duen patrikako ordutegia.

Astegunetako zein asteburu eta jai egunetarako Euskotrenek dituen autobus eta tren zerbitzu ordutegiak jasotzen ditu; garraibide batak zein besteak Donostia eta Zarautz artean egiten dituen geltokien ordu zehatzekin. Udan izaten diren aldaketak ere kontuan hartu dira.

Horrekin batera, Zubieta eta hiri-burua arteko joan etorriak egiten dituen TSST autobusa zenbatero dagoen zehazten da. Oso egokia da



ALE GEHIAGO ESKURA: SUTEGIN, NOAUA!N, UDALETXEAN ETA ALIPROXEN.

patrikan edota karteran lekutxo bat eginda beti gurekin eramateko. NOAUA!ko ale honekin batera jaso-ko da jada indarrean dauden ordutegi berriak.

Ale gehiago eskuragarri daude honako leku hauek: NOAUA!n, udaletxean, Sutegiko liburutegian, kirolegian eta Aliprox dendan.

ORDUTEGIA Tren							
Donostia AMARA	Donostia LUGARITZ	Donostia ANORGA	Donostia ERREKALDE	USURBIL	Orio AIA	Zarautz SAN PELAIO	ZARAUTZ
05.47	05.50	05.52	05.55	06.03	06.14	06.19	06.20
06.17	06.20	06.22	06.25	06.33	06.44	06.49	06.50
06.47	06.50	06.52	06.55	07.03	07.14	07.19	07.20
07.17	07.20	07.22	07.25	07.33	07.44	07.49	07.50
07.47	07.50	07.52	07.55	08.03	08.14	08.19	08.20
08.17	08.20	08.22	08.25	08.33	08.44	08.49	08.50
08.47	08.50	08.52	08.55	09.03	09.14	09.19	09.20
09.47	09.50	09.52	09.55	10.03	10.14	10.19	10.20
10.47	10.50	10.52	10.55	11.03	11.14	11.19	11.20
11.47	11.50	11.52	11.55	12.03	12.14	12.19	12.20
12.17	12.20	12.22	12.25	12.33	12.44	12.49	12.50
12.47	12.50	12.52	12.55	13.03	13.14	13.19	13.20
13.17	13.20	13.22	13.25	13.33	13.44	13.49	13.50
13.47	13.50	13.52	13.55	14.03	14.14	14.19	14.20
14.17	14.20	14.22	14.25	14.33	14.44	14.49	14.50
14.47	14.50	14.52	14.55	15.03	15.14	15.19	15.20
15.17	15.20	15.22	15.25	15.33	15.44	15.49	15.50
15.47	15.50	15.52	15.55	16.03	16.14	16.19	16.20
16.17	16.20	16.22	16.25	16.33	16.44	16.49	16.50
16.47	16.50	16.52	16.55	17.03	17.14	17.19	17.20
17.17	17.20	17.22	17.25	17.33	17.44	17.49	17.50
17.47	17.50	17.52	17.55	18.03	18.14	18.19	18.20
18.17	18.20	18.22	18.25	18.33	18.44	18.49	18.50
18.47	18.50	18.52	18.55	19.03	19.14	19.19	19.20
19.17	19.20	19.22	19.25	19.33	19.44	19.49	19.50
19.47	19.50	19.52	19.55	20.03	20.14	20.19	20.20
20.47	20.50	20.52	20.55	21.03	21.14	21.19	21.20
21.47	21.50	21.52	21.55	22.03	22.14	22.19	22.20
00.00 Astelehenerik Ostiraleri LANEGUNETAN 00.00 Astelehenerik Igandera eta JAIEGAN							

Agenda !!

Irailak 21 / Irailak 23
Santueneko festak (ikus 5. orria).

Irailak 26, asteazkena
UEMAri buruzko hitzaldia, 19:30ean
Sutegin. Antolatzailea: Aitzaga elkarte.

Irailak 28, ostirala
"Gu ta gutarrak", bertso ikuskizuna,
22:30ean Sutegin. Sarrerak NOAUA!n
eta Txirristran salgai.

Erakusketa Sutegin

"Euskararen egoera Euskal
Herrian", irailaren 24tik 29ra,
Sutegiko erakusketa aretoan.

Ordutegia: astean zehar, 18:30-
20:30. Asteburuan: 11:00-13:00.

Antolatzailea: Aitzaga Kultur
Elkartea.

Datorren astean askatuko dute Oihana Lizaso

Duela bost urte atxilotu zituzten
Jokin Errasti eta Oihana Lizaso.
Irailaren 28an, zigor osoa bete eta gero
kalera aterako da Oihana Lizaso.
Okerrik ez bada, iluntzeko 21:00ak
aldera iritsiko da. Lehen ongi etorria
Oxtapen egingo diote.

Irailaren 28a ostirala, gaueko 21:00ak
aldera. Hala espero dute bere senideek
eta lagunek. Lehen ongi etorria orduan-
txe egingo zaio. Dena den, omenaldia
urriaren 6an jasoko du eta herri afaria
egingo da frontoian.

Irailaren 27an, manifestazioa
Irailaren 27koa Gudari Eguna izango
da. Usurbilen manifestazioa egingo da.
20:00etan abiatuko da udaletxe aurreko
plazatik eta frontoian amaituko da.



IRAILAREN 28AN LEHEN ONGI
ETORRIA EGINGO ZAIO OIHANARI.

ORDUTEGIA
Autobus

Astelchenetik Ostiralera LANEGUNETAN

DONOSTIA - ZARAUTZ

ZARAUTZ - DONOSTIA

DONOSTIA

URBIL

USURBIL

ZARAUTZ

ZARAUTZ

USURBIL

URBIL

DONOSTIA

07:40	>>	08:05	08:25	08:45	07:05	>>	07:30
08:10	>>	08:35		07:15	07:35	>>	08:00
08:40	>>	09:05	09:25	07:45	08:05	>>	08:30
09:10	09:30	09:35		08:15	08:35	>>	09:00
09:40	>>	10:05	10:25	08:45	09:05	>>	09:30
10:10	>>	11:05	11:25		09:40	09:45	10:10
11:40	>>	12:05	12:25	09:45	10:05	>>	10:30
12:10	12:30	12:35			10:40	10:45	11:10
12:40	>>	13:05	13:25	10:45	11:05	>>	11:30
13:10	13:30	13:35		11:15	12:05	>>	12:30
13:40	>>	14:05	14:25	12:45	13:05	>>	13:30
14:10	14:30	14:35			13:40	13:45	14:10
14:40	>>	15:05	15:25	13:45	14:05	>>	14:30
15:10	15:30	15:35			14:40	14:45	15:10
15:40	>>	16:05	16:25	14:45	15:05	>>	15:30
16:10	>>	17:05	17:25		15:40	15:45	16:10
17:40	>>	18:05	18:25	15:45	16:05	>>	16:30
18:10	18:30	18:35			16:40	16:45	17:10
18:40	>>	19:05	19:25	16:45	17:05	>>	17:30
19:10	19:30	19:35		17:15	18:05	>>	18:30
19:40	>>	20:05	20:25	18:45	19:05	>>	19:30
20:15	20:35	20:40	21:00		19:40	19:45	20:10
21:00	21:20	21:25	21:45	19:45	20:05	>>	20:30
22:15	22:35	22:40	23:05	20:45	21:05	21:10	21:30
				21:15	21:35	21:40	22:00

00.00

Aiera jarraitzen da.

00.00

Aieratik dator

00:00 Atera jarraitzen da.

00:00 Aitak dator

ORDUTEGIA Autobus

Larunbat, Igande eta JAIEGUNETAN

DONOSTIA

URBIL

USURBIL

ZARAUTZ

ZARAUTZ

USURBIL

URBIL

DONOSTIA

08:00	08:20	08:25	08:45
09:00	09:20	09:25	09:45
10:00	10:20	10:25	10:45
11:00	11:20	11:25	11:45
12:00	12:20	12:25	12:45
13:00	13:20	13:25	13:45
14:00	14:20	14:25	14:45
15:00	15:20	15:25	15:45
16:00	16:20	16:25	16:45
17:00	17:20	17:25	17:45
18:00	18:20	18:25	18:45
19:00	19:20	19:25	19:45
20:00	20:20	20:25	20:45
21:00	21:20	21:25	21:45
22:00	22:20	22:25	22:45
22:30	22:50	22:55	23:15

06:45	07:05	07:10	07:30
07:45	08:05	08:15	08:40
08:45	09:05	09:15	09:40
09:45	10:05	10:15	10:40
10:45	11:05	11:15	11:40
11:45	12:05	12:15	12:40
12:45	13:05	13:15	13:40
13:45	14:05	14:15	14:40
14:45	15:05	15:15	15:40
15:45	16:05	16:15	16:40
16:45	17:05	17:15	17:40
17:45	18:05	18:15	18:40
18:45	19:05	19:15	19:40
19:45	20:05	20:15	20:40
20:45	21:05	21:15	21:40
21:45	21:05	21:15	21:40

NEGUNO LARUNBAT GAUEAN

00:00	>>	00:25	00:45	23:15	23:35	>>	00:00
02:00	>>	02:25	02:45	01:15	01:35	>>	02:00
04:00	>>	04:25	04:45	03:15	03:35	>>	04:00
06:00	>>	06:25	06:45	05:15	05:35	>>	06:00

00:00 Larunbat lanegunetara bakarrik.

DONOSTIA - ZARAUTZ

ZARAUTZ-DONOSTIA

00:00 Larunbat lanegunetan bakarrik.

ETXEBIZITZA

- Pisua alokatu nahiko genuke. Ama-alabara. Alokatzeko pisurik baduzu dei iezaguzu: 616 59 11 99.
- Etxe bat salgai Nagusia kalean, 90 metro karratu, 3 logela, 2 komun, egongela handia, sukaldea, 9 metro karratuko ganbara, dena amueblatuta. 55.000.000pta. 625 702 539.
- Salgai. Kaxkoan, 3 logelako etxea trastero-arekin. Garajea aukeran. 685731792
- Bi gela edo gela bateko apartamentu baten bila nabil Usturbilan. 687 650 066 (Maria).

SALEROSKETAK / GARAJEAK

- Moto bat saltzeko, Richoo RR beltza, 49 cm3. 649 302 733 (David). Ondo zaindua, “extra” asko.
- Estrenatu gabeko Aprilia Scoter SR 50 motoa saltzen dut. 649 356 081.

LANPOSTUAK

Lan-eskaintzak

- Emakume euskalduna behar da Orion, tren geltoki ondoan etxea garbitu eta haurrak zaintzeko. 615 723 755.
- Astean bi egunetan etxeko lanak egin eta tarteka umea zaintzeko pertsona baten bila nabil. Irailetik aurrera hasteko. 627278907.
- Benta tabernan lan egin nahi baduzu deitu: 685 757 962.
- Kamarero edo kamarera euskaldun bat behar da Zumeta jatetxean. 943 362713.
- Urte osoz, astebukaeratan lan egiteko zerbitzari baten bila gabilta. 943366710.

Lan-eskaerak

- Etxeko lanak egiteko emakumea eskaintzen da. Goizez edo arratsaldez lan egiteko prest. Deitu: 679 79 61 01.
- Emakume euskaldun bat eskaintzen da, egunero lauzpabost ordu lan egiteko. Egun osoko disponibilitatea. 687348223.
- Fisikako ikaslea, uda honetan matematika eta fisikako klaseak emateko prest. 943 37 12 77 / 685 772 602 (Nerea).
- Pertsona helduak zein haurrak zaintzeko edo etxeko lanak egiteko neska bat eskaintzen da. 677343326
- Emakume bat eskaintzen da etxeko lanak egiteko, pertsona helduak zein haurrak zaintzeko. 630274906
- Emakume bat eskaintzen da umeak edo pertsona helduak zaintzeko. 676221378.
- Neska bat eskaintzen da umeak zaintzeko zein etxekolanak egiteko. Egun osoko disponibilitatea. 679742413.
- Portalak eta eskailerak garbitzeko neska bat eskaintzen da. Esperientzia horrelako lanetan. 690 784 113.
- Oporretako, ospakizunetako, edozein motatako bideoak montatzen dituen profesionala eskaintzen da. 943555835/ 617 242 660.
- Etxeko lanak egin, pertsona helduak zaindu edo jateke batean lan egiteko prest nago. 610 669 335.
- Neska bat eskaintzen da etxeko lanak egiteko eta umeak zein pertsona helduak zaintzeko. 618434990.
- Etxeko lanak egiteko edo pertsona helduak zein haurrak zaintzeko emakume

bat eskaintzen da. 620646769.

BESTELAKOAK / GALDUTAKOAK

- Txakur-kumeak oparitzen ditugu, hiru hilabeteako. 943 36 33 06.
- Pottoka salgai, kalifikatua eta subentzioa jasotzen ari dena. 626 220925.
- Egurrezko aulkiak salgai. Aritz egurrez eginkoak. 943 36 20 49.
- Salgai bixkientzako aulki bat, Red Castle markakoa, osagarri guztiekin: burbuja, zakua... 943 36 07 54 (Ana).
- Lur zatitxo bat hartuko nuke, baratz txiki bat osatzeko. 615744076.
- Bigarren eskuko trikitixa bat erosiko nuke. 656 76 52 13.
- Añamendi enziklopediaren 80 tomo dauzkat saltzeko prezio oso onean. 635733984.
- Benelli repetidora salgai 600 euro.
645 735750.
- Mercedes Vito Mixta 112CDI bat saltzen dut. Aire egokitua, kristal tintatuak, bigarren bateria, berogailu autonomoa, aurreko eserlekuak biririkariak, dena hornitua, ASR... 610 431 999.
- Faema markako lau besoko kafetera bat daukat salgai. 645708191.
- 5 urte dituen Renault Megane Coupe bat daukat salgai. 637 760 852.
- Snow egiteko tabla bat fijasioekin salgai. Tf: 679 185 102.
- Argazki zaharrak berritzen eta txukuntzen dira. Baita ezkontza, opor edota beste edozein ospakizunetako bideoak editatu ere. 617 242 660/
apore@euskalnet.net

Zorionak
Uxue!!

Irailaren 21n
zortzi urte
egingo ditu-
zu. Zorionak
eta muxu
handi bat aita, ama
eta Ioritzen partez!



Zorionak
Aritz!

Irailaren
19an
6 urte
beteko
dituzu, zorionak
familia osoaren
partez!



Zorionak
Miriam!

Zure 7.
urtebete-
tzean
etxeko en
partez zorionak
eta muxu
potolo bat!



JAIOTZAK

- **Adrian Palacios Martin**,
irailaren 6an.
- **June Altadill Yuste**,
irailaren 7an.
- **Leire Guisado Cobo**,
irailaren 8an.

HILDAKOAK

Juan Jose Benito Hernandez
Irailaren 11n hil zen 86 urterekin
Atxegalden.



ASKO DUGU ESATEKO

NOAUA! astekaria, tren eta autobusen
ordutegia, noaua.com, kultur ekitaldien
sustapena, euskararen normalizazioa, urte-
ko egutegia, beka deialdiak, NOAUA!
Txiki, Plis, Plas, Txalo eta Jolas, ...

Asko dugu esateko. Baina zure laguntza
ere premiazkoa da.

Bazkide egin zaitez!

Noaua!

36 euro urte osorako

Izena: _____

1.Abizena: _____

2.Abizena: _____

Helbidea: _____

Herria: _____

Telefona: _____

E-posta: _____

[illegible]

Orrialdea bete eta NOAUA!ra ekarri edo telefonoz deitu: 943 360 321.

euskara

zure sekretua

zu munduaren isla zara

ez uste zu ez zarela

zarelaiko dakigu guk

zuk ahalmena daukazu

mundua edertuko duzu

usurbil

ETUMETA EUSKALTEGIA

Kale Nagusia, 45 behea. 20170 USURBIL

943 37 20 01

Udalaren diru laguntzaz

PLAZA MUGATUAK

www.aek.org

902 36 22 94

The logo for Aek (Asociación Euzkoetarra) is written in a stylized, cursive brown font.



ofizioen gida



Gida honetan azaldu nahi baduzu: 943 360 321 • publizitatea@noaia.com